


## ***Entzia – Urbasa zeharkaldia Azaroak 24 larunbata***



Urbasa Andiako parke Naturala balore geografikoz, biologikoz, ekologikoz, arkeologiko eta soziokulturalaz osaturiko eremua da.


Parke Naturalaren lurazpia kareharriaz osatuta dago eta bertan Kretazikoko garaian sortutako harri mota hau uraren higadurarekin lantzen joan da. Lanketa honen ondorioz kobazulo, simaz eta dolinaz osatutako lurra daukagu gaur egun. Kareharria duela 65 milioi urte bertako itsasoan bizi ziren izakiez osatuta dago.

Guztira 21.408 hektareako azalera du, gehienez pagadiz eta mendiko larrez osatuta. 42º 35' eta 42º 52' ipar latitude eta 835 eta 1.492 metroko altuera artean dago, gailurra Beriain mendia izanik. Mota askotako landaretza du. Mendilerro biak partzuergoak dira, jabea Nafarroako Foru Erkidegoa izanik.

**Irteera ordua:** 8:00etan Estadioko atletik. Itzulera 18:00etan Gasteizen.

**Zailtasuna:** Ibilbide osoaren zailtasunak hasierako zatian aurkituko ditugu. Arrokoz osatutako ibilbidean datza, gure kasuan teknikoki erreza izango da.

**Ibilbidea:** Opakuako portuan hasiko dugu ibilbidea. Entziako hormen gaineratik doan bidea hartuko dugu denbora guztian. Bide honetatik Baio, Mirutegi eta Legaireko zelaietatik pasako gara. Behin Entziako mendatea alde batera usten dugula, Urbasako parke naturalan sartuko gara. Orain bidez aldatu eta pagadietan barrena doazten bizketatik aurrera egingo dugu.



Hamar kilometrotan, Urbasako kanpin ondoan dauden larreetan agertuko gara, bertan ardi eta zaldi asko ikusteko aukera izanik. Larrean bide desbideraketa bat egingo dugu eta errepide ondoan dagoen Patxi Ruiz abeltzainaren bordan amaituko dugu eguna, Idiazabalgo gazta erosteko aukera izanik.

**Lurzorua::** Mixtoa arroka eta belarra, zonalde kárstikoa izanik arrokako,

basoetako eta larre inguruneak topatuko ditugu. Nahiz eta, gure ibilbidea teknikoki erraza izango den.

**Erritmoa eta ordutegiak:** Denok lasai eta gustora joateko erritmo bat eramango da, hau da, taldera moldatutakoa, ez ditugu markak hautsiko. Ibilbidean zehar hainbat geldiune egingo dira. Egunean zehar ez dira oso luzeak izango ez ozteko, eta luzeago bat bazkaltzeko.

#### **Beharrezko materiala:**

- Arropa beroa
- Uretako Txaketa
- Txanoa eta guanteak
- Eguzkirako betaurrekoak
- Bastoiak (jeitsietarako gomendagarriak)
- Eguzkitako krema
- Mendi edo trekking-eko botak "eginak" sola berriarekin.
- Eguna pasatzeko jana eta edaria.

#### **Zuen gidak**

**Ibai Rico:** Geografoa, glaziologoa eta geografi irakaslea UPVn Patagonian, Artikoan eta Himalayan ikertzen ibili da. Alpinista eta eskalatzailea hainbat mendikate bisitatu ditu, baita pirineoak puntarik punta HRPtik zeharkatu ere. Alpeetan, Kilimanjaron, Kaucaison, Norbegian eta Atlasean izan da lanean beste batzuen artean.

**Unai García:** Eskarmentu handiko alpinista, Pirineotan, Alpeetan, Himalayan eta Atlasean ibilitakoa, mendi-ertaineko gida eta irakasle moduan orientazio, autoreskate, lan bertikaletan eta ekintza gidatuetan izaten da lanean. 2013tik geroztik Estadioan ere gida lanetan dihardu Pirineotan eta Euskal mendieetatik.